



TXINTXARRI

Aurreiritziak, kolokan

'Lagun beltz asko' antzezlanaren emanaldia egin du Ados Teatroa konpainiak, kultur etxean / 6

Martxoaren 8a ez da egun bakarra

Emakumearen Nazioarteko Egunerako jarduera ugari antolatu dituzte udalak nahiz Asunak talde feministak / 2-3

Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi oroitu ditu EH Bilduk, haien heriotzaren 21. urteurrenean / 5

Gazteen emantzipazioaren arazoa lantzeko komitea sortu du herriko GKSak / 6

'bitxi_sua' Instagram kontuan erakusten ari da Ane Galardi errezeta erraz eta goxoak nola egin / 8

'Inproaurpegiak' erakusketa ondu du Nerea Tejeriak; Jalgin jarri ditu sortutako artelanak ikusgai / 9

Euskal Ligakoak izan ezik, Ostadar Boleiboleko gainerako taldeek irabazi egin dute / 11

Hockeya herrian ikusarazteko txapelketa eta erakustaldi bana egingo dituzte / 12

2MÓ 99€
erreflexuen aurkako
betaurreko graduatuak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



R.P.S. 91/20

MULTIÓPTICAS

943 37 74 55
Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multiópticas.com   



Ezker-eskuin: Maite Iglesias, Agustín Valdivia, Lourdes Acevedo eta Irati Olaetxea. TXINTXARRI

Denetik eta denentzat

Adin tarte guztietako lasarteoriatarrek inplikatu nahi ditu udalak berdintasuna erdiesteko bidean, eta, horregatik, horiei guztiei zuzendutako programa oparoa prestatu du Emakumearen Nazioarteko Egunerako; hilaren 22an amaituko da

Txintxarri

Martxoaren 1ean irekiko duten kartel erakusketarekin hasiko da hilabete ia osoan zehar luzatuko den jardueraren sorta. Udal ordezkariak azpimarratu dute berdintasunaren ezaugarri garrantzitsuena "inor kanpoan ez uztearena" dela eta egoera hori lortzea emakumeen nahiz gizonen ardura dela. "Herritarrei eskatu nahi diet gai hauei buruz ezezagutzatik ez hitz egiteko eta aurreiritziak alboratzeko, horrek konfrontazioa besterik ez duelako eragiten", nabarmendu du Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Lourdes Acevedok.

Udaleko Berdintasun teknikari Irati Olaetxea eta Maite Iglesiasek, Agustín Valdivia alkateak eta Acevedok berak aurkeztu dute aurtengo egitaraua. Antolatutako ekimenetan parte har-

tzera deitu dituzte herritarrek eta nabarmendu dute adin tarte guztietako pertsonak izan dituztela kontuan jarduerak antolatzekoan. Hau da agerraldi baten bidez plazaratu duten programa:

OSTIRALA 1

Aurreko urteetan herritarrek Martxoaren 8ko egitarauetarako egindako kartelen erakusketa irekiko dute Emakumearen Zentroan, 18:00etatik 20:00etara. Hilaren 8ra arte egongo da zabalik eta sarrera doakoa da.

BERDINTASUNAREN EZAUGARRI GARRANTZITSUENA "INOR EZ KANPOAN UZTEA" DA

OSTEGUNA 7

Martxoaren 8ko 2025eko egitaraua zein kartelek ilustratuko duen iragarriko dute afixa lehiaketaren sari banaketa ekitaldian. 17:00etan hasiko da, Emakumearen Zentroan.

OSTIRALA 8

Emakumearen Nazioarteko Egunean zehar jarduerak aurrera eramango ditu udalak. Horieta-ko lehenengoa eguerdiko elkarretaratzea izango da, 12:00etan Okendo plazan.

Arratsaldean helduentzako emanaldi bat aurrera eramango du Makelur taldeak, *Escuela de princesas* antzezlanaren emanaldia eginda, gaztelaniaz. 19:30ean hasiko da ikuskizuna Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan. Antolatzaileek

jakinarazi dute sarrerak doakoak direla.

Egun berezi hori giro ederrean amaitzeko, emakumeen afaria egingo dute Casa Humada jate-txean, 21:30ean. Otordu horretarako izena eman nahi duten lasarteoriatarrek Emakumearen Zentroan egin behar dute tramite hori, 30 eurogatik.

ASTELEHENA 11

Solo sí es sí: alumbrando las sombras que ha producido el ruido mediático (Soilik bai da bai legea: zarata mediatikoak eragindako itzalak argitzen) hitzaldia emango dute EHuko ikerlari eta legelari Sara Arruti Benito eta EHuko ikerlari eta kazetari Mainer Galardi Fernandez de Agirre lasarteoriatarrek, gaztelaniaz. Antonio Mercero aretoan izango da saioa, 18:30etik aurrera.

ASTEARTEA 12

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoak bere saiora gonbidatuko du Idoia Garzes idazle lasarteoriatarra, berak ondutako *Mendiko gaitza* eleberriaz hitz egitera. Taldearen dinamizatzaile den Aintzane Usandizagak gidatuko du Antonio Mercero aretoan izango den saioa. 18:30ean ekingo diote.



ASTEAZKENA 13

Berdintasun gaiei buruzko bideoforum bat aurrera eramango dute Biyak Bat adinekoen egoitzan, 17:00etan hasita.

OSTIRALA 15

Evaren Alabak taldeak *Cromlech* antzezlanaren emanaldia egingo du, elebitan. Helduei zuzendutako ekimena da, doakoa. Manuel

EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNEKO ELKARRETARATZEA, OKENDON 12:00ETAN

Lekuona Kultur Etxeko auditorioan izango da, 19:30ean.

ASTEARTEA 19

Izan Inurri elkarteak egiten duen (Min)bizi podcastaren Minbizia-aren ama umeak kapitulua proiektatuko dute eta horretan parte hartzen duten hizlarietako batzuekin solasaldia egin gero. Antonio Mercero aretoan aurrera eramango dute jarduerak, 18:30etik aurrera.

ASTEAZKENA 20

Berdintasunean irakurketarekin jolastuz ipuin kontaketa saioa egingo dute 6 eta 8 urteko haurrekin. Maria Garcia Lodero ipuin kontalariak gidatuko du ekimen hori. Antolatzaileek ohartarazi dute tokiak mugatuak direla eta parte hartu nahi duten herritarrek Udal Liburutegian izena eman behar dutela. Jarduera toki horretan bertan egingo dute 17:00etatik aurrera.



OSTEGUNA 21

Lan saio parte hartzaile bat aurrera eramango du Emagin elkarteak, elebitan: *Nola hobetu Lasarte-Oriako emakumeon bizitza?* Ekimena irekia dela nabarmendu dute antolatzaileek.

OSTIRALA 22

Okendo Zinema Taldeak *Al descubierto* filma emango du Manuel Lekuona Kultur Etxean, 20:00etatik aurrera, helduentzat. Sarre- rek 6 euro balio dute.

Eskanea ezazu QR kode hau TXINTXARRI-k Martxoaren 8rako egindako kanal bereziko edukiak irakurtzeko.





Herritarren jakin-mina piztu zuen Izan Iñurriko kideekin Zabaleta Auzolanen lokalean egindako emanaldi eta solasaldiak. ASUNAK

Entzun, ikusi, ikasi eta aldarrikatu egingo dute

Emakumearen Nazioarteko Egunaren bueltan ekimen sorta bat aurrera eramango duela iragarri du Asunak talde feministak. Martxoaren 8an bertan kaleak hartzeaz harago, esparru gehiago jorratuko ditu datozen egunetan, formatu desberdinak erabilita

Txintxarri

Asunak neska* gazteen talde feministak ere zenbait ekimen antolatu ditu Martxoaren 8rako bertarako, baita aurreko nahiz ondorengo egunetarako ere. Aurrenekoa aurrera eramán du honezkero: Izan Iñurri elkarte-kide diren Julene Ilarramendi eta Iara Alonso gonbidatu zituen Zabaleta Auzolan elkar-

tearen lokalera otsailaren 26an. Haiekin solasaldia egin aurretik eragile horrek egiten duen (*Min*) *bizi* podcastaren hamargarren atala proiektatu zuten, *Gazte, arraro, errebelde* izenekoa. Dorenaka herritar bertaratu ziren ekitaldira.

Entzun, ikusi, ikasi eta aldarrikatzeko ikus-entzunezko bat da (*Min*)*bizi*. Gaixotasun horre-

kin lotura duten makina bat gai lantzen dituzte mahaiaren bueltan eserita eta podcast formatuan. Horieta bat, gazteek ez daukatela "inolak espaziorik" beraien bizipen eta kezka partekatzeko. Gero eta ohikoagoa da gainera, BMJ Oncology aldizkariak argitaratutako ikerketa batek diolako 50 urtetik beherrakoen artean tumoreen mundu

mailako intzidentzia %79 hazi dela 1990. urtetik. "Adituen arabera, bizi-ohitura ez oso osasungarriak, elikadura txarra, sedentarisismoa, kutsadura, antibiotikoen gehiegizko kontsumoa dira, besteak beste, goiz agertzen den minbiziaren hazkundearen erantzuleak. Halaber, ez dute baztertzen gidoi bira horretan oraindik ezezagunak diren beste faktore batzuk tardean egotea. Iruditzen zaigu asko dagoela ikertzeko beste faktore ezezagun hoienguz. Arnasten dugun airea ez ote da hain garbia? Xahututa gaitun kapitalismoak gaixotu egiten gaitu? Gizarte honek daukan estresak estutzea ixteko programa biologikoa jarritzen ote du martxan?"

Aipatu kapitulu hori ikusi ostean, emanaldira bertaratu zirenek aukera izan zuten Izain Iñurriko kide Julene Ilarramendi eta Iara Alonsorekin hitz egiteko.

Lehen esan bezala, datozen egunetarako ekimen gehiago prestatu ditu talde feministak:

ASTEARTEA 5

Borobilean Elkartarekin batera, bi belaunalditako hiruna emakume gonbidatuko ditu elkarren ondoan eseri eta "tertulia goxoan" aritzera, honako gaiez hausnar dezaten: sexualitatea, soldatapeko lana, zaintza, feminismoa... Oriarte Landaberri institutuan aurrera eramango dute mahai inguru hori, 19:00etatik aurrera. Hizlariak hauek izango dira: Manoli Zumeta, Haizea Arbizu, Amaiur Izagirre, Mari Jose Eizmendi, Nahia Urdalleta eta Itziar Iartza. Ixiar Arteagak moderatuko du saioa eta gonbidatu berezi bat izango dute: Grego.

OSTEGUNA 7

Lasarte-Oriako mugimendu feministaren genealogia hizpide hartuko dute eta bertsotrikipo-teoa egin erdigunean barrena. Ibilbidea urratu ahala bertsolari bakoitzak argazki bana izango du erreferentzia, bertan ikusiko duenari buruz koplaka aritzeko. Okendo plazatik abiatuko dira parte hartzaileak, 19:00etan.

OSTIRALA 8

Emakumearen Nazioarteko Egunean manifestazio bat aurrera eramango dute erdigunean barrena. Okendon hasiko da ekin-tza, 19:00etan.



ASTEARTEA 12

Ihitten elkarteak ondutako *Lasarte-Oria: istorio zumez egina* dokumentala proiektatuko dute Zabaleta Auzolan elkartearen lokalean. Emanaldia 17:00etan hasiko da.

HERRITAR GUZTIAK GONBIDATU DITUZTE ANTOLATUTAKO JARDUERETAN PARTE HARTZERA



Eutsi gureari!

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

otsailak 25 - martxoak 13

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, arroza, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



errigora.eus



Omendu eta jardueren berri emateko kartel bila

Aurtengo sanpedroetako egitaraua ilustratuko duen afixa aukeratzeko lehiaketa martxan jarriko du udalak hilaren 4an. Parte hartu nahi dutenek hilabete amaierara arte izango dute euren lanak prestatu eta bidaltzeko. 600 eurokoa da saria

Txintxarri

San Pedro Jaietako omendua nor izango den jakiteko eta festetan izango ditugun jarduerak zeintzuk izango diren zehazteko parte hartze prozesuak martxan jarri ostean, hori guztia bilduko duen egitaraua ilustratuko duen kartela hautatzeko lehiaketari ekingo dio udalak hilaren 4an, astelehenaekin. Agustin Valdivia alkateak eta Festak saileko zinegotzi Txus Alonsok jakinarazi dute parte hartzeko azken eguna hilaren 31 izango dela. "Nahi duen edonork nahi adina lan aurkeztu ahalko ditu. Hori bai, afixek originalak izan beharko dute eta aurrez saririk jaso gabekoak".

Kartel guztiek bai ala bai izan behar dute honako goiburua hau, lanean inprimatuta: *San Pedro Jaiak Lasarte-Oria 2024*. Egileek bermatu egin beharko dute "irudien erabilera ez sexista", Alonsok zehaztu duenez. "Emakume eta gizonen presentzia ez bada orekatua eta estereotipo tradizionalen bat nabarmetzen badute, lehiaketatik kanporatuko ditugu hori egiten duten partaideak". Afixak egiteko teknika "erabat librea" dela azpimarratu du eta parte hartzaileek fisikoki nahiz digitalki bidal dezake-



Txus Alonso eta Agustin Valdivia, azken urteetako kartelak erakusten. TXINTXARRI

PARTE HARTZAILEEK 67 LAN AURKEZTU ZITUZTEN IAZKO FESTETAKO AFIXA LEHIAKETARA

ketela sortutakoa, ezaugarri hauekin: JPG formatua, 50x70 zentimetroko neurria eta 300 pixel hazbeteko. Lanak jaso ostean, irabazlea nor den erabakiko du Festak sailak eta zenbait herritarrek osatutako epai-

mahaiak. Saridunak 600 euro poltsikoratuko ditu (kopuru horri indarrean dagoen legediaren arabera PFEZ zerga aplikatuko diote).

Alonsok eta Valdiviak herritar guztiak animatu dituzte lehiaketan parte hartzera eta baita "kanpoko jendea" ere, Espainiar Estatutik datozen gero eta lan gehiago jasotzen baitituzte. Iazko txapelketan 67 kartelen artean aukeratu behar izan zuten Festak sailak eta epaimahaiak; aurtengo "are lan gehiago" izatea espero dute.

laz bezala, aurtengo sanpedroak ekainaren 28an (ostirala) hasi eta uztailearen 2an (asteartea) amaituko dira.



Parte hartze prozesuen azken egunak

Udal ordezkariak gogorarazi dute herritarrek aukera dutela oraindik San Pedro Jaietako omenduaren eta festetan zehar egin beharreko jardueren bueltan proposamenak egin eta udalari helarazteko.

Jakinarazi dute ekarpenak egiteko azken eguna igandea izango dela, hilak 3. Iradokizunak sarea erabilita bidali nahi dituztenek udalaren

webgunea (www.lasarte-oria.eus) erabili behar dute. Modu hori ez erabili eta ideiak fisikoki helarazi nahi dituztenek etxean jasotako eskuorriak bete eta udal postontzietan utzi behar dituzte, gune hauetan daudenetan: Emakumearen Zentroa, kultur etxea, Gaztelekua, Antonio Mercero gunea eta Maialen Chourraut kirodegia.



Ubarretxena eta Mendocza, zubi bat zeharkatzen. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

"Bereziki trinkoa" den trafikoa arinduko du Allerruko lotuneak

Corten altzairuarekin egindako bi zubi eraiki ditu Foru Aldundiak; aurrekontua 8.989.292,30 eurokoa izan da

Txintxarri

Gune hori bisitatu dute berriki Gipuzkoako ahaldu nagusi Eider Mendozak eta Foru Aldundiko Bide Azpiegiturako diputatu Maria Ubarretxenak. 2022ko azaroan eraikitzen hasitako azpiegitura berriak "bereziki trinkoa" den trafikoa berrantolatuko duela nabarmendu dute biek.

Azpiegituraren ezaugarri nabarmenena corten altzairuarekin egindako bi zubi berriak dira. "Atmosferaren korrosioak ez die eragingo eta zubi zaharrak zituen galibo arazoak saihestuko ditu. N-1 errepidearen lotune berri horren "garrantzi kualitatibo eta kuantitatiboa" azpimarratu ditu ahaldu nagusiak. "Probintzia mailan logistikaren gune neuralgiko bat da, Lasarte-Oriako industrialde, Zubietako ingurumen zentro edota Eskusaitzeko industria parkera sartzeko bidea emango duena". Azken gune horri berebiziko inportantzia eman dio Mendozak,

Naturklima erreferentzia zentroa eta MUBIL mugikortasun berriaren poloa daudelako bertan. "Etorkizuneko ekonomiaren eta lanpostuen aldeko apustu garrantzitsuak dira eta horietara joan ahal izateko azpiegitura seguru, moderno eta lehiakorrek behar ditugu".

Lanen "konplexutasuna"

Bide Azpiegiturako diputatu Maria Ubarretxenak hartu du hitza ondoren, Allerrun egin dituzten lanen nondik norakoak azaltzeko. "Konplexutasun handikoak" izan direla adierazi du, pasabide garai bat ordezkatu eta 45 metro luze dituzten bi zubi jarri dituztelako, corten altzairuarekin egindakoak. "Gipuzkoa osoan ez dago ezaugarri hauek dituen beste biribilgune alturik".

Galibo berriak bost metro neurtzen dituzenez, garraio berezi eta ibilgailu handienak "arazorik gabe" ibil daitezke N-1 errepideko eremu horretan.

Datorren urteko egutegia ere argazki osatzeko

Udalak iragarri du *Lasarte-Oria zure objektiboan* lehiaketa egingo duela 2025eko egutegia herritarrek ateratako argazkiekin osatzeko. Parte hartzeko azken eguna urriaren 25a izango da, larunbata. Saridun bakoitzak 100 euroko erosketa bonu bat irabaziko du egitasmoarekin bat egi-

ten duten komertzioetan gastatzeko. Egutegiaren azalera eramango duten irudiaren egileak beste 50 euroko txartel bat ere poltsikoratuko du.

Lasarte-Orian erroldatuta egon eta gutxienez 16 urte izan behar dituzte partaideak eta bakoitzak hiru argazki bidali ahalko ditu; horietan, udalerriko eremu edo jarduerak islatu behar dituzte. Irudiek originalak izan behar dute eta formatu horizontalekoak.

"Egia, aitortza, justizia eta erreparazio" eske

Lasarte-Oriako EH Bilduk aitortza ekitaldi bat aurrera eraman du Okendo plazan, duela 21 urte errepidean auto istripuz hildako Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi herritarrek gogoratzeko. Hilaren 3an omenalditxo bat egingo diete Teresategi mendian

Txintxarri

"Argi, Iñaki eta istripu horretan larriki zauritu zen Joxe Balerdi Espainiar Estatuaren erabaki politiko batek jarri zituen errepidean; horrek behartu zituen urte luzez kilometroak eta kilometroak egitera, babesgabetsun egoera larri batera kondenatuta", kritikatu du EH Bilduk. "Dispersio politika indarrean mantendu duen denbora horretan guztian ondorio ugari ekarri dizkie presoen familiako eta adiskideei: gastuak, nekea, sufrimendua eta istripuak. Eurak ere, kondenatuak izan gabe, zigortuak izan dira".

Testuinguru horretan, alderdiak "egia, aitortza, erreparazioa eta justizia" eskatu ditu Argi Iturralde eta Iñaki Balerdiarentzat, "euskal gatazka politikoaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan dituzten gainerako biktima guztiak bezalaxe". Gogoan izan dituzte, bereziki, bi herritar horiez gain errepideetan hildako beste hamalau pertsonak. "Heldu da garaia hamasei biktima horien eskubide urraketak aitortzeko, gizarte modura beharrezko hausnarketa eginda, sentsibilitate guztiak errespetatuta eta biktima batzuk eta besteak alderatzeko ariketak ekidinda". Koalizio subiranistak uste du heldu dela "ausartak" izateko eta disper-



Kartelaz gain, Argi eta Iñakiren argazkiak erakutsi zituzten. TXINTXARRI

tsioaren ondorioak pairatu dituztenak aitortzeko legezko mekanismoak abian jartzeko garaia.

Salbuespeneko politikak

Gaur-gaurkoz urruntzea bukatu eta euskal preso denak Euskal Herriko kartzeletan egonagatik, EH Bilduk gogoratu du indarrean jarraitzen duela salbuespeneko espetze politikak. "Horiek desagertzeara beharrezkoa da. Ez dira pribilegioak, legedia arrunta baidak. Askatasunik gabeko pertsonen dagokien eskubideak bermatu behar zaizkie". Ildo horretatik,

Euskal Herriko erakunde politiko eta judizialei dei egin die, euskal presoen etxera itzultzeko ibilbidea erraztu dezaten. "Erabaki politiko ausart eta zuzenak eskatzen ditu horrek; pertsona guztiak beren eskubideen jabe direla bermatuta soilik izango da posible elkarbizitza eraikitzea".

Igandean, hilak 3, omenalditxo bat egingo diete Teresategi mendian. Zutabe bat 11:00etan abiatuko da Okendotik, eta, bestea, Zabaletatik, ordu laurden geroago. Jaitsitakoan, hamaiketakoa egingo dute auzo horretan.

Elkartasuna adierazi diote Mendebaldeko Saharari

Dozena pare bat herritar manifestatu dira Okendo plazan, SEAD errepublikaren 48. urteurrenean

Txintxarri

Mendebaldeko Saharako herritarrei elkartasuna adierazteko pare bat jarduera aurrera eraman ditu berriki Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria eragileak. Lehenengo, elkarretaratze bat

Okendo plazan, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zutela 48 urte bete ziren egunean, otsailaren 27an. Giro hotza ez zen oztupo izan dozena pare bat herritar eta udal ordezkari Ma-

roko Saharatik at! Independentzia lelodun kartelaren atzean jartzeko. Ordu erdi inguruz manifestatu ziren, ekintza aurrera eraman bitartean bozgorailuan saharar musika jarrita.

Bi egun geroago Sahara, herri bat erresistentzian liburua aurkeztu zuen Kristina Berasain Tristan kazetariak, Jalgi Kafe Antzokian. Zenbaki hau inprentara bidali bitartean aurrera eraman zuten jarduera hori, kronika hilaren 8ko aldizkarian irakurri ahalko duzue.



Okendo plazan irakurri zuten manifestua. TXINTXARRI

"Konfrontazioa betikotzeko saiakera" salatu dute

Lasarte-Oriako Sarek deitutako Azken Ostiralean 60 bat herritarrek parte hartu dute; ohiko ibilbidea gauzatu dute

Txintxarri

Lasarte-Oriako Sarek antolatutako otsaileko ekintzan 60 bat herritarrek parte hartu zuten. Elizatetik Okendora bitarteko ohiko ibilbidea osatu zuten lehenik, eta plazara iristean, idatzi bateratua irakurri zuten. Hilabetean gertatutakoa gainbegiratu eta aurrera begirako hitzorduen berri eman zieten bertaratutakoei.

Sarek eta Etxerategi adostutako idatzia irakurri zuen ohi bezala Pili Kastresanak. Urtririlean Bilbon egindako mobilizazioan "euskal preso, iheslari eta deportatuen auziari atarabide justu demokratikoa eta behin betiko konponbidea" behar duela aldarrikatu zuten. Hala ere, horren ondoren "konfrontazioa betikotzen saiatzen" diren sektoreetatik aldarrikapen horrekin bat egin zutenen kontrako jazarpen birtuala gaitzetsi zuten, baita Sareren nahiz Etxe-

raten aurkako kriminalizazio saiakera salatu ere, "preso daudden eskubideak defendatzea delitutzat hartu nahian". Halaber, konfrontazioari eta sufrimenduari atek itxi eta elkarbizitza eta benetako bakeari atek irekitzeko lanean jarraituko dutela berretsi zuten.

Jarraian, zenbait hitzorduren berri eman zuten bertaratutakoei. Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi heriotzaren 21. urteurrenaren harira, Teresategi mendira joango dira etzi, hilak 3, omenalditxo egitera. Horrez gain, hilabete honetan ez dute hilabeteroko protesta ekintza aurrera eramango, Ostiral Santuarekin bat egingo baitu. Azkenik, Sarek hilaren 9an egingo duen Batzar Orokorean parte hartzea gonbidatu dituzte bertaratutakoak. Arabako Araia herrian aurrera eramango dute, Andra Mari Zinema aretoan, 10:30ean.



'Maroko saharatik at! Independentzia' zioen kartelak. TXINTXARRI

Emantzipazioaren arazoa lantzen hasi dira

Gazteei bereziki etxebizitzaren aferak nola eragiten dien aztertzeko bilera egin du Gaztelekuan Lasarte-Oriako Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS). Belaunaldi berrietako kideen egoeran sakondu eta errealitate hori gertutik landu nahi du taldeak

Txintxarri

Egoerari buruzko zenbait datu eman ditu lehenik kideetako batek, arazoa testuinguruan kokatzeko. 2023ko datuen arabera, EAEen 16-29 urte bitartekoen emantzipazio tasa %15 da eta batezbesteko emantzipazio adina 30 urte, Europako beste herrialdeekin alderatuta "oso altua". Horren azalpenetako bat da batezbesteko soldata 1.005 euro izanda, alokairuarena 944ekoa dela. Hau da, lansariaren %93,9. Gainerako gastuak gehituta, "soldata osoa baino gehiago behar da bizitza duin bat izateko".

Udalak iragarri berri du egungo kiroldegia dagoen orubean gazteentzako etxebizitzak egiteko duen asmoa. Gehienez, 80 pisu izango dira, baina komitean azaldu dutenez, herrian 3.200 bat gazte bizi dira; hortaz, horien %2k izango du aukera, "bost urtez soilik". Gainera, nabarmendu dute, herrian erroldatuta daudenei begirakoa izanik, etorkinek aukerarik ez dutela izango.

Urte urte, soldaten balioa jaitsi egin da eta horrek are gehiago zaildu du gazte langileen emantzipatzeko aukera; oinarritzko eskubidea izan arren, "batzuen interesengatik, pribilegio bat da". Sarrera eginda,



GKSren herriko komitearen lehen bilera. TXINTXARRI

bertan zirenen egoerak eta eza-gutzen dituzten errealitateak partekatu dituzte. Besteak beste, bakarrik emantzipatzea ezinezkoa dela nabarmendu dute, beste bi edo hiru lagunekin partekatuzera "behartuta" daudela, 300-400 euro ordainduta bakoitzak. Batetik, gazteek etxea partekatzearen "erromantizazioa" egiten dela uste dute, eta bestetik, egoera horrek eskubidea ere baden intimitate galera dakarrela.

Etxegabetzeaz ere aritu dira, horiek gelditzeko benetako ir-

tenbideak ematen dituztenak etxebizitza sindikatuak direla azalduz. "Hortik horrelako komite edo taldeen garrantzia, erakundeen ezintasuna agerikoa delako".

Etxebizitzaren garestitzea, pisuen egoera "lotsagarria", ikasleen egoeraz aprobetxatzea, errentadunak, alokatutakoa berriro alokatzen duten maizterrak, Donostiaren egoerak inguruko herrietan izandako eragina... Lanketa egin ahal izateko hurrengo saiorako datuak biltzen ahalegintzea adostu dute.



Luis, Bashir eta Xabier, antzezlanaren eszena batean. TXINTXARRI

Kolokan jarri dituzte estereotipoak eta aurreiritziak

Ados Teatroa konpainiak 'Lagun beltz asko' antzezlanaren emanaldia egin du kultur etxean

Txintxarri

Xabi Luisen tabernara joango da, bere bikotekide Martarengandik 300 metrora egotea debekatua badu ere. Luisek hitzordu bat du eta lagunari joateko esango dio, nahiz eta honek ez dion jaramonik egingo. Halako batean, gizon batek laguntza eskatuko die kaletik. Tabernariak ez du nahi, baina Xabik atea irekiko dio. Ahal bezala azalduko die Bashir duela izena, afganiarra dela, maleta lapurtu diotela eta bertan zuela diru zorroa; eta sakelakoa kargatzeko beharra duela Londresen dagoen alabarekin hitz egiteko.

Hizkuntzaren mugak elkarren artean komunikatzeko zailtasunak eragingo ditu eta estereotipoetan oinarritutako aurreiritziak nahasmena eragingo dute hiru pertsonaien artean; ezusteko amaiera batekin.

Kontaketaz gain, bi lagunek zenbait unetan gertatu denaren gogoeta egiten dute, istorioaren norabidea aurreratuz. Ezberdina denarekiko beldurra edo arbuioa ardatz du antzezlanak, barrea eta dramaren arteko orekan. Emanaldiak herritar ugariaren jakin-mina piztu du, kultur etxeko auditorioko beheko solairua bete baitute.

Hurrengoa, 'Loti ederrak'

Hilabete honetako kultur ekimenen berri eman du udalak eta horietako bat izango da Gluglu taldeak bihar egingo duena, hilak 2, kultur etxean, 17:00etan: *Loti ederrak* antzezlanaren emanaldia aurrera eramango du. Haurrei zuzendutako ikuskizuna da eta sarrerek 4 euro balio dute. Ipuin klasiko horren bertsio moderno bat prestatu du konpainia horrek, "eduki tradizionalista eta sexistak ezabatuta".

Amaitu da aurtengoa

Herritarrek zur eta lur utzi ditu aurtun ere CIMASUB Itsaspeko Zinema Zikloak. Antolatzaileek, batetik, itsas hondoko altxorak erakutsi dituzte, eta, bestetik, ingurune natural horietan gizakiak eragiten ari diren arazoak. Hiru emanaldi egin eta erakusketa bat prestatzeaz gain, Txikizikloa aurrera eraman dute herriko ikastetxeetako ikasleekin.



ISAAC FARRE

Beroketa ariketak egiten hasiko dira Korrikarako

Hilaren 19an zeharkatuko du gure herria 23. Korrikak, 'Harro herri' lelopean. Egun handi horretara sasoi betean iriste aldera, ekimen ugari prestatu ditu Lasarte-Oriako Muntteri AEK euskaltegiak, herriko zenbait elkarte eta eragilerek lankidetzan

Txintxarri

Hilaren 14an Irundik abiatu eta hamar egun geroago Baionan amaituko den euskararen aldeko lasterketarako ez da aski hanka eta birrikak sasoi izatea, Korrika badelako bihotzarekin ere egiten den ekimen erraldoi bat. Hori guztia berotze aldera, Lasarte-Oriako Muntteri AEK euskaltegiak programa zabal bat prestatu du herriko eragile eta elkarte batzuekin elkarlanean. 23. Korrika hilaren 19an etorriko da Urnietatik, gaueko hamarrak aldera, *Harro herri* lelopean.

Goiburu horri erreferentzia eginda, Korrika Kulturala izenez ezagutzen diren ekimenen antolatzaileek harro egon nahi dute gure herriak 23. Korrikari egiten dion harrerarekin. Lehen girotze jarduera gaur bertan aurrera eramango dute, hilak 1, kultur etxean, 20:00etan, Okendo Zinema Taldearekin elkarlanean: *Bizkarsoro* filma proiektu



Lasterkariak, Kale Nagusian barrena, 22. Korrika herritik igaro zenean. TXINTXARRI

tatu eta Josu Martinez zuzendariarekin solasaldia egingo dute gero (egitarau osoa eskuneko zatiduran duzue).

Programako beste ekitaldi aipagarri bat hilaren 16ko aurkezpen gala izango da. Ikuski-

zuna 18:30ean hasiko da, kultur etxeko auditorioan. Eragile ugari emanaldiak egingo dituzte eta ondoren aurtengo kilometroak erosi dituztenei petoak emango dizkie Muntteri AEK-k. Horren aurretik, Xumela koru-

Korrika Kulturalaren egitaraua

Hilaren 19a baino lehenagoko jarduerak

- **Hilak 1, ostirala, 20:00etan kultur etxean:** *Bizkarsoro* filmaren emanaldia eta Josu Martinez zuzendariarekin solasaldia.
- **Hilaren 4tik 18ra, Antonio Mercero aretoan, 17:00etatik 19:00etara:** Korrikari buruzko erakusketa bat ikusi ahalko dute herritarrek, herriko ikastetxeetako ikasleek prestatu dutena.
- **Hilaren 13an, Ttakunenea elkarte, 18:00etan:** Bea Egizabal clownak bakarriketa bat egingo du eta ondoren solasaldi bat aurrera eramango dute euskaldundu egin diren herritar batzuekin.
- **Hilaren 16an, kultur etxean, 18:30ean:** 23. Korrikaren aurkezpen gala egingo dute eta petoak banatu.
- **Hilaren 17an, kultur etxean, 12:30ean:** *Ez da kasualitatea* bertso saio musikatua egingo dute. Ane Labaka, Oihana Iguaran, Miren Amuriza eta Onintza Enbeita ariko dira koplaka Maite Berriozabalek jarritako gaiekin. Gari Otamendi eta Ixak Arruti izango dira musikariak.

Hilaren 19a, Korrika eguna

- **11:00etatik 12:00etara, herrian barrena:** Korrika txikia.
- **17:00etatik aurrera, Okendo plazan:** gaztetxoentzako jokoak, Ostadar SKTren eskutik. Bitartean, enparantza hori alaituko du Porrotx pailazoak.
- **17:30etik 19:30era, Okendon:** Zirku Tailerra. Lau gune izango ditu.
- **19:30ean, Okendon:** pintxo dastaketa, herriko elkarte gastronomikoen eskutik.
- **19:30etik 21:00etara, herrian barrena:** kaleak girotuko dituzte Oaintxe in deu! txarangak eta herriko txistularien taldeak.
- **22:00ak aldera, Urnietatik** iritsiko da 23. Korrika gure herrira.

ko lagunek zenbait abesti kantatuko dituzte Okendo plazan, 17:45ean, eta ostean kalejiran joango dira aretora. Ekimen hori amaitzean, Ttirriki Ttarrakako trikitilariek alaituko dituzte kaleak.

Egun garrantzitsuena, nola ez, 19a izango da, asteartea. Goi-zetik gauera arteko egitaraua prestatu du euskaltegiak, ikastetxeetako ikasleek egingo duten Korrika txikitik hasita, 11:00etatik 12:00etara.



TXINTXARRI

Andaluziagatik topa egin dute

Semblante Andaluz elkarteko kideentzat otsailaren 28a da urteko egun handiena, Andaluziarena. Hori behar bezala ospatzeko, udal ordezkari, bazkide eta beste elkarteetako kideak gonbidatu eta ohorezko ardoarekin topa egin zuten, lurralde horrek gure herriarekin duen

senidetzeak oparoa izaten jarrai dezan. Asteguna izanik, jarduera nagusiak igande honetarako utzi dituzte, hilak 3: meza rozieroaz, agintari eta gonbidatuekin egingo duten bazkariak eta Semblante Rociero koruaren emanaldiaz gozatuko dute.



TXINTXARRI

Eguraldi goibelari aurre egiteko

Hotzari eta eguraldi goibelari aurre egin diete Plaza Dantza egitasmoan parte hartzen ari diren lagunek eta batu direnek. Okendon musika jarri eta biribila osatuta aritu dira. Ingurutik pasatu direnetatik pieza amaituta txalo egin dienik izan da. Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak aurrera daramate egitasmoa. Asteartero Sasoeta LHko gimnasioan entsetzen dute, 20:00etan.

"Sasoiko produktuak dira zapozet beteta dauden elikagaiak"

ANE GALARDI FERNANDEZ DE AGIRRE SUKALDARIA ETA 'BITXI_SUA'-REN SORTZAILEA Egunerokoan oinarritzko osagaiak erabiliz errezeta erraz bezain goxoak kozina daitezkeela erakutsi nahi du herritarrek; 'bitxi_sua' Instagram kontua jarri du martxan horretarako

Maddi Zaldia

Sasoiko produktuak, maitasunez sutan kozinatuta errezeta erraz eta goxoak presta daitezkeela erakutsi nahi du Ane Galardi Fernandez de Agirre (Lasarte-Oria, 1997) sukaldari lasarteoriatarak. Ez erakutsi bakarrik; jendea horiek egitera animatu dadin nahi du, eta horretarako, *bitxi_sua* Instagram kontuan jarri du martxan. Abiatu berri duen proiektu horretaz, eta beste hainbat kontuz mintzatu da TXINTXARRI aldizkariarekin.

Nolatan abiatu duzu Instagrameko 'bitxi_sua' proiektua?

BCC Basque Culinary Center-en egin ditut ikasketak eta egun, bertan ari naiz lanean. Nire egunerokotasunean, enpresei edo gure parte direnei sortzen dizkiet edukiak eta errezetak. Ingurukoak, nire ahizpa kasu, aspalditik zebiltzan Instagram kontu bat martxan jar nezan animatzen. Hortik abiatuta sortu dut *bitxi_sua*. Lehena-gotik banuen nire profil pertsonala, baina ez nituen biak nahastu nahi; nire alde gastronomikoa erakusteko sortu dut hori.

Zure alde gastronomikoa erakustez gain, badu beste helbururik 'bitxi_sua'-k?

Nire helburua da jendeari egunero egin daitezkeen errezeta errazak erakustea; errutinazko plateretik ateratzekoak egin daitezkeela erakutsi nahi dut. Egunerokotasunean kozinatzen dutenei edota hori egiteak nagitasun apur bat ematen dienei gauza goxo eta errazak egin daitezkeela ikusarazi nahi diet. Errezeta eskuragarriak, oinarritzko osagaiekin eginak, barazki askorekin... Ukitu berezi bat edukiko dutenak izango dira.

Sortzen dutan edukia nork jasoko duen ere argi izan behar da. Kontuan hartu behar da sare so-



Ane Galardi Fernandez de Agirre, kozinatzen. IRATXE ETXEANDIA

zioletako *target*-a zein den; normalean, erabiltzaileak gazteak izaten dira.

Defendatzen duzu, beraz, eguneroko janari goxoak prestatzea erraza izan daitezkeela.

Bai, esan bezala uste dut oinarritzko hiruzpalau osagaiekin jaki oso goxoak egin daitezkeela, eta betiko plater tipikoez gain beste hainbat egin ditzakegu. Noski, beti, sasoiko produktuei duten garrantzia eman eta horiek erabili.

Sasoiko produktuekin kozinatu eta horiek kontsumitzeari garrantzia ematen diozu, beraz.

Bai oso garrantzitsua da niretzat. Uste dut horien erabileraz kontzientziatu behar garela denok, bi

aspektu nagusirengatik. Alde batetik, horiek direlako zapozet beteta dauden elikagaiak eta bertakoak direnak; inguruko ekoizle bati erosten badizkiogu, askoz hobe. Eta, bestalde, ekonomikoki beti izango direlako merkeagoak. Azken hori ere garrantzitsua da, uste baitut, gastronomia ere iritsi behar dela publiko guztietara. **Gauden sasoia kontuan hartuta, udaberriko bidean, zeintzuk dira garai honetan kontsumitu ditzakegun produktuak?**

Oraintxe bertan sasoian dauden barazkiak, adibidez, agian, nolabait esateko distira gutxi dutenak izan daitezke: aza, eskarola, letxuga, azalorea, brokolia, zerbak, ziazerbak. Frutei dagokienez, aldiz, zi-

trikoen denboraldia ere bada eta oso momentu ona da horiekin kozinatzeke.

Azalorea, adibidez, iruditzen zait, orokorrean, ez dela produktu oso gustagarria, baina egin daitezke errezeta eder pila bat; espezieekin labean, adibidez. Laster argitaratuko dut barazki horrekin egindako errezeta bat. Erakutsiko dut azalorea kanpoaldetik kurruskaria eta barrualdetik krematsua kozinatzen, eta jogurt saltsa batekin lagunduko dut. Azken horri, gainera, gehi dakioke oliba olioia, gatza, pipermi, limoi zukua eta menda pixka bat. Dip gisa jateko errezeta eder bat da, azalore plater ohi-koren alderatuta zerbait bereziagoa izan daitezkeena. Superelikagai bat izan daitezke azalorea.

Gaur gaurkoz zazpi errezeta argitaratu dituzu. Zein maiztasunekin erakutsi asmo dituzu horiek?

Asmoa da astean bizpahiru errezeta argitaratzea. Igande, astearte eta ostegunetan egingo dudala aurreikusitako; igandeetako, adibidez, etorriko den astean ideiak edukitzeke. Saiatuko naiz maiztasun horri eusten.

Kontua izendatzeko erabili duzun izenak ere badu sukaldaritzarekin lotura. Euskarazko hitz joko polit bat egin duzu, gainera.

Buelta eta buelta ibili nintzen izenaren aukeraketarekin. Ez nuen sare soziala martxan jarri nahi, izena benetan gustuko nuela sentitu arte; identifikatuta sentiarazten ninduen izatea nahi nuen.

Vichysoise-a da Frantziar jatorria duen porruarekin egindako pure hotz bat. Eta gustatu zitzaidan, euskarara ekarri Bitxi eta Sua-rekin egin zitezkeen hitz jokoak: bitxia, zerbait ezberdina, bitxia erakusteko, eta sua, berriz, sukaldea sua delako.

Proiektu honetan ere hizkuntzarena garrantzitsua da niretzat. Euskaraz ere argitaratu nahi nuen eta horregatik egiten ditut argitalpenak bi hizkuntzatan. Iruditzen zait gastronomia euskaraz ere zabaldu behar dela; hutsune hori ikusten dut sare sozialetan.

Instagrameko proiektuaz gain, Lasarte-Orian oso ezagun eta kuttuna den elkarte batekin ere bazabiltza elkar lanean.

Bai. Julene [Ilarramendi] eta Miren [Cuervo] lagunak dira, herritarrek eta egiten dutena izugarria da; minbiziaren gaia lantzeko modua iraultzen ari dira. Iaz eskaini zitaduten aukera eurek antolatutako erretiro batean sukaldari

"NIRE HELBURUA DA JENDEARI EGUNERO EGIN DAITEZKEEN ERREZETA ERRAZAK ERAKUSTEA"

ri gisa aritzeko, eta ez nuen bi aldiz pentsatu. Aurten ere, dagoneko bi egin ditugu.

Esan behar dut saio horietan aritu eta horien parte izatearen pribilegioa nirea dela; izugarri transmititzen didate eta asko ikasten dut. Horietan nire helburua eta lana da erretiroak iraun bitartean egingo dituzten saio guztietarako energia eman eta sabel eta barrenak goxatzea, noski, janariaren bitartez.

Saiatzen naiz janaria osasuntsua izan dadin, baina badago ezberdintasun bat osasuntsu eta dietetikoaren artean. Nire iritziz, janariak egin behar digu on bai mentalki eta baita animikoki ere.

Jakiak egon behar du goxoa, eta izan behar da osasuntsua. Ahalik eta produktu garbienak jan behar ditugu, hau da, ultra prozesatuak alde batera utziz. Beraz, Inurrirrekin ere bide horretatik egiten dut nire lana. Janari osasuntsua eta zapozet betetakoa prestatzen dut, beraiek ere ikus dezaten egin daitezkeela plater osasuntsu eta goxoak.

Gainera, eskaintzen dit aukera kozinatu dudan hori parte hartzaileek nola jaten duten ikusteko, eta prestatu dieran horrekiko dituzten erreakzioak behatzeko. Kozinatzen dudanean, maitasun osoz egiten dut, nire energia guztia jartzen dut egiten dudan errezeta bakoitzean.

Hitz egindako proiektuez gain, badu zu besterik eskuarte?

EITB orain emititzen ari den Sukaldarien liga programan asesoria gastronomikoa egin dut. Programak egin ditu probak, eta diseinatu dinamikak, eta nire lana izan da proba horietako bakoitzean zein errezeta kozinatu beharko dituzten zehaztea. Atrezkoarekin batera, ikus daitezkeen bodegoiak ere diseinatu ditugu. Asesoria gastronomikoa egitea izan da nire zeregina.

Eskaneatu QR kode hau 'bitxi_sua' Instagram kontura joateko



Maddi Zaldua

Zimurtasuna duen papera, ikatz ziria eta koloretako arkatzak hartuta, aurpegiak marraztea maite du Nere Tejeria Iriarte (Lasarte-Oria, 1978) herritarrak. Horrela sortu ditu Jalgi kafe antzokian erakusgai jarri dituen 11 artelanak. Horiei, ordea, normalean bere marrazkiei egiten ez dizkien eraldaketa batzuk egin dizkie erakusgai jartzeko, eta lan horietara ohituta ez dagoen arren, eginda-koak merezi izan duela iritzita, oso pozik agertu da egilea. Ez du aurrerago beste erakusketa bat egingo duenik bazterzen, nahiz eta argi duen, lehen esperientziarako hartu duen lana ez duela berriz errepikatuko. *Inproaurpegiak* erakusketaz hitz egin dio TXINTXARRI aldizkariari.

Nolatan sortu zaizu erakusketa mar-txan jartzeko aukera?

Egunero marrazten dut, edo saiatzen naiz, behintzat, marrazketa-ri tartetxo bat eskaintzen. Udan ebakuntza bat egin zidaten, eta bi hilabetez bajaran egon nintzen, inoiz baino gehiago marraztu nuen eta egindako lan horiek guztiak pilatu zitzaizkidan. Ingarukoei erakutsi eta gustuko zizutela adieraztearekin batera, erakusketa egitera animatu ninduten. Nik, hasiera batean ez nuen egindako lanak erakusteko inolako asmorik, baina, behin, Jalgi kafe antzokian nengoela, bertako paretei begira jarri eta irudikatu nituen nire lanak horietan eskegita.

Zer ikus dezakete 'Inproaurpegiak' ikustera doazenek?

Inprobisatutako 11 aurpegi; hortik dator erakusketaren izena: *Inproaurpegiak*. Horiek marrazten ditut, ez bereziki horiek egin nahi ditudalako, baizik eta horiek marraztea delako naturalki sortzen zaidana. Haurra nintzenetik atentzioa eman didate aurpegiak; beti pentsatu izan dut denok bi begi, sudur eta aho bana eta bi belarri izanagatik, ez daudela berdinak diren bi aurpegi. Marrazketan ere gauza bera gertatzen da; ezinezkoa da bi berdin egitea.

Nire marrazkiak, gainera, normalean ordena berean egin ohi

"IKATZ ZIRIA ERABILTZEA OSO GUSTUKO DUT; ESKUAK ZIKINDU ETA ITZALAK EGITEA"



Nerea Tejeria, Jalgin, 'Inproaurpegiak' erakusketarako prestatu dituen artelanei begira. TXINTXARRI

"Aurpegiak marraztea sortzen zait naturalki"

NERE TEJERIA IRIARTE 'INPROAURPEGIAK'- EN EGILEA

Iragan udan egindakoak dira Jalgin erakusgai jarri dituen lanak. Marrazteaz gain, bestelako eskulanak egin dizkie horiei guztiak, nahiz eta lan hori ez duen marraztea bezain gustuko

ditut; begiekin hasi, sudurra gero... Hori bai, bereziki inolako arte diziplina konkreturik jarraitu gabe. Sare sozialetan-eta jarraitzen ditut artistak eta begiratzen dut jendeak egiten dituen lanak, eta, agian, horiengandik nolabaiteko eragina izan dezakete nire lanek, baina libreki, ateratzen zaidana marrazten dut nik.

Nola sortu dituzu lan horiek guztiak?

Nik egiten ditudan marrazkiak ez dira perfektuak, ez dut hori bilatzen. Esbozoa gustuko dut, eskuak zikintzea, trazuak lantzea. Baina erakusketa aurrera eramango nuela erabaki nuenean, ez nituen besterik gabe egindako lanak pintza batzuekin zintzilik jarri nahi, zerbait landuagoa izan zedin nahi nuen. Eta hemen hasi zen nire buruhautea.

Zergatik?

Ez nekielako, erakusketara begira, marrazkiak nola osatu. Horregatik, lagun bati, Blami-ri laguntza eskatu nion; Lasarte-Oriako artista bat da. Hark esan zidan lehen gauza izan zen marrazkiak

markoetan jarri behar nituela, argi ikusten zuela hori. Hori hala izanik, zaborretatik eskuratutako pila bat oparitu zizkidan; denetarik zegoen, handiak, txikiak, gradunak, zikinak... Horiek garbitu, txukundu, prestatu eta argitasun apur bat ikusten hasi nintzen, konturatu bainintzen markoetan jarrita asko irabazten zutela marrazkiek.

Eta nolako izan da prozesuaren zati hori?

Bada, emaitzarekin oso pozik nagoen arren, horra iritsi arteko bidea gogorra izan da; erditze baten antzekoa izan dela iruditzen zait. Buruhauteak izan ditut. Marraztuta nituen marrazkiak moldatu behar izan ditut tamaina ezberdinetara, adibidez. Jalgin argi asko dago, eta hori hala izanik, errotulagailuak ohi baino gehiago erabili behar izan ditut.

Moldaketa horiek egin aurretik ziren marrazkiak gehiago gustatzen zitzaizkidan niri, nahiz eta, arestian esan bezala, emaitzarekin oso gustura nagoen, ez zait azken

emaitza hain perfektua izatea gustatzen.

Jalgin dauden lan horiek normalean ez ditut egiten, nik marrazkiak soilik egiten ditut. Erakusgai jarri ditudan lan horietan, marrazketa lanaz gain eskulanak egin ditut, eta hori, normalean ez dut egiten. Izugarriko lana izan da; marrazkiak lasai, buruhausterik gabe egiten ditut, baina benetako lana horiek erakusketarako moldatzea izan da niretzat. Lan honetan ezinbestekoa izan den nire ama ere aipatu nahiko nuke; hor egon da, nire ondoan, ahal izan duen guztian lagundu dit.

Zein material erabili duzu egindako marrazki horiek osatzeko?

Etxean neukanarekin hasi nintzen probak egiten, zama-babesekin, besteak beste. Proba horiekin gustura sentitzen nintzenean, erabilitako material hori erosi dut, eta horrela joan naiz, poliki-poliki, marrazki bakoitza moldatu eta osatzen.

Eta marrazkiak sortzeko?

Lehenik eta behin, ikatz ziria, oso gustuko dut; esan dudana bezala, eskuak zikintzea gustatzen zait eta itzal asko egitea ere bai. Horrez gain, koloretako arkatzak erabiltzea ere izugarri maite dut, horiekin leun-leun margotu eta bata bestearekin nahastea. Koloreen erabilera gehiegi pentsatu gabe egiten dut. Arkatza guztiei punta ondo zorrozten diet, eta martxaren arabera erabiltzen dut bata ala bestea, nahiz eta egia den, beti dagoela intenzionalitate puntu bat.

Papera ere oso garrantzitsua da akaberarako. Nik, adibidez, idazteko erabili ohi ditugu orri zuri horietan ez dut koloretako arkatzekin lortzen dudana efektu hori eskuratzen, zimurtasuna duen papera erabili behar dut horretarako.

Eta azken emaitzarekin gustura?

Bai, oso. Egia da, pieza bakoitzari amaiera ematea ere zaila izan dela. Horregatik, erakusketak muntatu bezperan, amaren etxera eraman nituen lan guztiak. Nire etxea tailer bat izan da hiru hilabetez, eta lanak horiek sorrarazten zidan amaiera ezin eman ahal izatea; beti ikusten nuen gehitu edo egin beharreko beste zerbait.

Eta behin erakusketa muntatuta ere, beste sentsazio bat da. Ez da gauza bera etxean, eskegi gabe, orokortasunean ikusteko aukerarik izan gabe erakusketa nolako izango den irudikatzea, edo Jalgin ikustea. Beldurra ere ematen zidan ekimena aurrera eramateak, lotsa ere bai. Seguru sentitu naiz, baina segurtasun eza ere sentitu dut. Orain, ordea, gauditu ditut sentimendu horiek guztiak lortu dudana emaitza ikusita; oso pozik nago.

Ikusgai egoteaz gain, salgai ere badaude.

Nire asmoa ez da lan horiekin dirua egitea, baina proiektua aurrera eramateak nolabaiteko gastua izan duenez salneurri nahiko xumea ezarrita salgai jarri ditut. 11 piezetatik bederatziz salduta daude.

Noiz arte izango dute lasarteoriatarrek ikustera joateko aukera?

Hilaren 10a izango da bisitatze-ko azken eguna eta hurrengo egunean kenduko dut.

Eskaneatu QR kode hau 'bitxi_sua' Instagram kontura joateko

Infantil mailako igerilariak, podiumean

Buruntzaldea IKTko kideak infantil mailako Euskal Herriko txapelketako lehen postuetan izan dira. Guztira 11 domina jantzi dituzte: bi urrezko eta bederatzizko. Markak ondu eta txapelketa desberdinetako gutxieneko zerrendan berriak gehitu dituzte

Txintxarri

Tolosako Usabal igerilekuan infantil mailako Euskal Herriko Neguko txapelketa jokatu zen otsaileko azken asteburuan. Buruntzaldea IKTko bost igerilari -Ibon Elola, Mario Amantegi, Amaiur Iparragirre, Iñaki Garcia eta Oihan Matute- izan ziren lehiaketa eta ederki jardun ziren. Bi urre, bederatzizko zilar, hamalau marka ondu eta maila ezberdinetako Espainiako zein Euskal Herriko txapelketarako gutxienekoak egin zituzten gazteek.

Igerilari bakoitzak bakarkako hiru probari egin zien aurre eta mutilek hiru errelebo saio ere egin zituzten. Maila ederrean egin zuten igeri eta podiumera igo ziren. Iñaki Garcia 15 urteko 50 m. eta 100 m. libre probetako txapeldu izan zen eta 200 metroko saioan bigarren; erreleboetan zilarrezko bi domina jantzi zituzten 4x100 m. libre eta 4x200 m. libre. Lehenean, gainera, euren marka ondu zuten 03.55,36,



Garcia, podiumeko gorenean. BURUNTZALDEA

baita lau estiloko 4x100 metroetan ere, 04.31,15.

Lortutako bakarkako erregistro berriekin (ikus koadroa) Garciak infantil mailako Espainiako txapelketarako bi gutxieneko berri gehitu ditu bere zerrendara, 50 m. eta 100 m. libre eta 200 m. libreko markarekin absolutu mailako Euskal Herriko txapelketa-

- **Ibon Elola**
100 m. libre, 59,76.
- **Mario Amantegi**
800 m. libre, 09.31,51 eta 400 m. libre 04.35,29.
- **Amaiur Iparragirre**
100 m. lau estilo, 01.26,01 eta 100 m. libre, 01.11,38.
- **Iñaki Garcia**
200 m. libre, 02.03,52; 100 m. libre, 55,41 eta 50 m. libre, 25,64.
- **Oihan Matute**
200 m. bular, 02.45,74; 400 m. libre, 04.35,38, zein proba horretako 200 m. pasean, 02.17,13 eta 400 m. lau estilo 05.18,15.

rako sailkapena eskuratu du. Mario Amantegik 800 m. proban egindako lanari esker, euren mailako Euskal Herriko udako txapelketan izango da igerian.



Eskolarteko txapelketako neurketetako bat. TXINTXARRI

Xake jokalarik gazteek ederki gozatu dute Eskolarteko txapelketan

Gipuzkoako ligan, Taula A taldeak Billabona D 3,5-0,5 garaitu eta bigarren mailako lehen postuan finkatu da

Txintxarri

Antonio Mercero aretoa xake zaletu gazte bete zen otsailaren 23an. Lasarte-Oriako Eskolarteko Xake txapelketa lehiatu zen eta Beraun, Andoain, Donostia eta Lasarte-Oriako 32 xake jokalarik bildu ziren bertan nor baino nor. Taulari eta erlojuari adi piezak mugitu, jokaldiak prestatu eta xake mate egiten saiatu ziren gazteak.

Bosna partida jokatu eta arratsalde ederra igaro zuten gazte txo guztiek Taula Xake Klubak antolatutako ekimenean. Parte hartzeagatik domina ere eraman zuten etxera. Guztien artean

Daniel Vegas herritarra izan zen sailkapenean lehena.

Postua mantendu

Egun bat geroago, ligako jardunaldia ere jokatu zuten Taula Xake Klubeko taldeek. Ongi egin zieten aurre aurkariei eta baliagarri diren puntuak eskuratu zituzten.

Villabonan izan zen Taula A taldea eta bertako D taldearen aurka 3,5-0,5 irabazi zuten. Puntu horiei esker, euren mailako lehen postuan mantendu eta finkatu da taldea.

Taula B taldeak, aldiz, binako berdinketa eskuratu zuen etxean.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA
Beti Gazte KJKE - Ostadar SKT Larunbata. 17:30. Mastegi, Lesaka, Nafarroan.
GORENGOEN MAILA
Ostadar SKT - Getariako Keta FT Larunbata. 16:35. Michelin kirol gunea.
ERREGIONAL I. MAILA, IGOERA
Texas Lasartearra CF - Idiazabal KE Igandea. 11:20. Michelin kirol gunea.
ERREGIONAL I. MAILA, KOPA
Alleru KE B - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. Plazeta, Lezon.
ARETO FUTBOLA
I. MAILA
Eguzki Arkupe Rehab. - Afanxo FK Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
III. MAILA
Eguzki ISU Leñoak - Irun Futsal Gabarrari CD Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
GAZTEEN MAILA
Herrikide - Eguzki Bod. Ayesa Larunbata. 11:00. Eskolapioak ik., Tolosan.

SASKIBALOIA
I. MAILA
Ostadar SKT - Digitarte Hoops Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.
III. MAILA
CD Internacional - Ostadar SKT Igandea. 16:00. Mons kirol., Donostian.
JUNIOR ERRENDIMENDUA
Ordizia Orbinox - Ostadar SKT Larunbata. 12:30. Majori kirol., Ordizian.
BOLEIBOLA
EUSKAL LIGA
Navarvoley B - Ostadar SKT Igandea. 11:30. Beriozarko kirol., Nafarroan.
EUSKAL LIGA, II. MAILA
Ostadar SKT - Bera Bera Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.
SENIOR MAILA
Vendetta M. - Ostadar SKT Larunbata. 18:00. Mons kirol., Donostian.
JUBENIL MAILA
Ostadar SKT - Aitza Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

PILOTA
ESKUZ BINAKA, 2. INFANTILA
Añorga - Intza KE 2 Ostirala. 18:00 (3. partida). Añorgako pil., Donostian. Arrasate 1 - Intza KE 1 Larunbata. 18:00 (2. partida). Musakola pil., Arrasaten.
ESKUZ BINAKA, 3. INFANTILA
Intza - Abantzu Igandea. 11:00 (2. partida) Michelin kirol guneko pil.
ESKUZ BINAKA, 2. ALEBINA
Intza KE - Arkirun 1 Igandea. 11:00 (1. partida) Michelin kirol guneko pil.
ERRUGBIA
EUSKAL LIGA, II. MAILA
AVK Bera Bera B - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT Larunbata. 16:00. Kote Olaizola est., Donostian.
18 URTEZ AZPIKOA
Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Cumenor Elorrio Arrasate RT Larunbata. 11:30. Michelin kirol gunean.
16 URTEZ AZPIKOA
Txinbaz - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT

Larunbata. 10:00. Lekaroz, Nafarroan.
JUDO
GIPUZKOA TXA'PELKETA
LOKEko infantil mailako judoketarako Gipuzkoako txapelketako finala jokatu dute. Larunbata. 15:00. Udak kiroldegia, Urnietan. LOKEko kadete mailako judoketarako Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute. Igandea. 09:00. Udak kiroldegia, Urnietan.
XAKEA
II. MAILA
Taula A - Gros J Larunbata. 16:00. Blas de Lezoko lokalean.
III. MAILA
Salto Bidasoa E - Taula B Larunbata. 16:00. Irunen.
ATLETISMOA
ESPAINIAKO TXAPELKETA
Herriko atletek Master mailako Espainiako txapelketan parte hartuko dute. Larunbata eta igandea. A. Elorza belodromoan, Donostian. Ostadar SKTko Elder Redondok 16 urtez azpiko Espainiako txapelketa

lehiatuko du. Larunbata. Valentzian, Herrialde Katalanak.
LASTERKETAK
LILATOA
Lasarte-Oriako hainbat korrikalarik 34. Lilatoian parte hartuko dute. Igandea. 10:30. Donostian.
HOCKEYA
ERAKUSTALDIA
16 urtez azpikoaren autonomia erkidegoen arteko txapelketa dela eta, hockey erakustaldia izango da. Igandea. 16:00. Okendo plazan.
MENDIA
UZ TRAIL
Lasarte-Oriako ordezkariak Uz Trail proban izango dira lehiak. Igandea. 09:00. Urretxu/Zumarragan.
ORIENTAZIO HITZALDIA
Joxepo Artolak mendiko orientazioaren gaineko hitzaldia eskainiko du. Ostirala. 19:00. Antonio Mercero aretoan.

Boleibol taldeek, txanponaren bi aldeak

Euskal Ligako taldeak izan ezik, Ostadar Boleibol saileko taldeek garaipeneko puntuak eskuratu dituzte Maialen Chourraut kiroldegian. Nahiz eta ederki borrokatu, etxetik kanpoan jardunaldia izan duten ekipoez ez dute zorterik izan euren neurketetan

Txintxarri

Boleibol zaletuek hainbat partidaz gozatzeko aukera izan zuten otsailaren 24-25 asteburuan, Maialen Chourraut kiroldegian. Aldeko emaitzak eskuratu zituzten talde gehienek.

Larunbata eguerdian, bi talde atera ziren kantxara, infantil A eta kadetea. Aldi berean lehiatu zituzten euren neurketak kantxa banatuta, infantilak Zarauzko Lizardi Bi izan zuen aurkari; kadeteak Altza. Etxeko zaletuen animoek bultzatuta, bi neurketetan garaipena erdietsi zuten etxeko taldeek emaitza berarekin 3-0. Infantilak gainera nagusitasunez eskuratu zuen garaipena; 25-6, 25-2 eta 25-8.

Arratsaldean, Euskal Ligako II. mailako taldearen txanda izan zen; Gasteizko IKA Ekialdearen aurka neurtu zituen indarrak eta 1-3 galdu. Ederki borrokatu ziren bi taldeak eta talde urdin-beltzak lehen seta eskuratu (25-22) arren, gasteiztarrek itzuli



Kadete mailako Ostadar-Altza partidako irudia. TXINTXARRI

lia eman zioten norgehiagokari (16-25, 23-25 eta 21-25).

Eta igandean, Gipuzkoako ligako senior taldeak Toloboleiren bisita jaso zuen. Seniorrak fin jardun ziren eta 3-0 gailendu ziren.

Kanpoan ezin

Etxetik kanpo bestelakoa izan zen egoera. Sestao, Aretxabaleta eta Hernanin aurkaria izan zen garaile.

Euskal Ligako taldeak Sestaon izan zuen partida. Ostadarrek ongi egin zion aurre etxeko tal-

deari, baina ezin izan zuen setik eskuratu. Sestao 3-0 (25-15, 15-18 eta 15-13) gailendu zen.

Jubenil taldeak Aretxabaletan jokatu zuen Arizmendi Aren aurka. Talde urdin-beltza 1-2 aurretik jarri arren, etxeko taldeak bina berdindu eta bosgarren setean 15-9 gailendu zen.

Infantil mailako B taldeak, aldiz, etxe ondoan jokatu zuen hitzordua, Hernanin eta bertako bigarren ekipoa izan zuen aurrez aurre. Hernaniarrek euren balioa erakutsi eta 3-0 irabazi zuten (25-17, 25-5 eta 25-14).

Eguzki Goxokis Goxua taldeak txapelketan aurrera egin du

Liga erregularreko azken jardunaldian Eskoriatza garaitu ostean, sailkapeneko bigarren postuan dago taldea

Txintxarri

Eguzki Goxokis Goxua taldeak garaipenarekin eman zion amaiera kadete mailako fase erregularri. Gorka Redondok zuzentzen duen taldeak azken sailkatu Eskoriatzaren aurka neurtu zituen indarrak Maialen Chourraut kiroldegian.

Etxeko taldea nagusi izan zen hasieratik eta aurkariak erasoak gelditzen saiatu arren, ezin izan zuen ezer egin; Goxokis Goxua 9-2 gailendu zen.

Bigarren postuan amaitu dute Eguzkiko kadeteek denboraldiko lehen zatia. Horri esker Gipuzkoako txapelketan aurrera egingo du Lasarte-Oriako taldeak. Bost talde izango dira lehiaketa itzuli bakarreko liga jokatu dute. Lehen lau sailkatuek lehiaketako finalurrekoei egingo diete aurre eta lehen biek, gainera, Euskadiko kopa lehiatuko dute Araba eta Bizkaiko ordezkariek aurka.

Partidaz partida

Taldeko prestatzaile Gorka Redondok azaldutakoaren arabera, Lauburu Ibarra A taldea da fabroritua lehen postua eskuratzeko eta beste hiru talderen artean –Eguzki Goxokis Goxua, Erain



Neurketako irudia. TXINTXARRI

eta Antiguoko KE Carpinteria-erabakiko da bigarren postua: "Neurketa bakarrera edozer gauza gerta daiteke. Aurten ez dugu Erain gainditu; bi neurketetan berdinketa erdietsi genuen. Antiguokoren aurka partida bat irabazi eta bestea berdindu genuen. Beraz, partidaz partida joan behar ko gara".

Hala ere, urteko helburua bete dutela nabarmendu du talde hori-beltzeko arduradunak: "Taldek lehen urtea du maila honetan, ongi moldatu gara eta fase erregularra bigarren amaitu dugu".

Martxoko lehen asteburuan atsedean izango du taldeak eta hurrengoan Erain izango du aurrez aurre.

Ostadar SKTko atletak, txapelketaz txapelketa

20 urtez azpiko Gipuzkoako txapelketan, Unax Riezuak zilarrezko domina jantzi du luzera jauzi proban

Txintxarri

Ostadar SKTko atletek adin ezberdinetako Espainiako zein Gipuzkoako txapelketei egin zieten aurre otsailako azken asteburuan eta azken hitzordu horretan lehen postuetan izan ziren herriko taldeko kideak.

Anoeta belodromoan, Donostian, 20 urtez azpiko Gipuzkoako txapelketa lehiatu zen otsailaren 24an. Talde urdin-beltzeko Unax Riezuak luzera jauziko zilarrezko domina jantzi zuen, 6,11 metroko jauziari esker. Horrez gain, 60 metro lasterke-

tan laugarren sailkatu zen, 07,84. Iker Gandia gaztea ere laugarren (02.21,30) izan zen 800 m. lasterketan.

Iraia Alkorta taldekidea, aldiz, Sabadellen, Katalunian izan zen 18 urtez azpiko txapelketan. 60 metroko laugarren sailkapen lasterketan lehiatu zen atleta gaztea eta 08,01 eginez ezin izan zen finalerdietarako sailkatu.

Valentzian lehia

Gipuzkoako txapelketarekin batera, proba libreak ere izan ziren Donostian. Herriko ordez-



Alkorta, Espainiako txapelketan. OSTADAR ATL.

karien artean, Eider Redondo gaztearen jarduna nabarmendu behar da. Atleta gazteak bere marka pertsonala ondu zuen, 09,36.

Denboraldi ederra egiten ari da Redondo eta hilaren 3an, 16 urtez azpiko Espainiako txapelketan izango da lehiaketa luzera jauzi proban.

Errepidean eta mendian lehiaketa

Lasarte-Oriako zein herriko taldeetako lasterkariak ez dute huts egin eta otsailako azken asteburuan ere lehiaketa izan ziren.

Otsailaren 24an, Zumaiako Herri Lasterketa jokatu zen. 10 kilometroko proban herriko ordezkariek izan ziren parte hartzen eta horien artean azkarrena, David Cordero izan zen (36.26).

Hurrengo egunean, Irunen eta Lezon izan ziren probetan ere izan zen herritarrik.

Lomeña fatxada Bidasoako Maratoi Erdian bildu zen lasarteoriatar talderik handiena bai 21 kilometroko proba nagusian baita 10 kilometrokoan ere.

Maratoi erdian Sergio Ramirez (01.14.39) eta proba motzean Jon Iradi Arteaga (47.09) izan ziren lehen herritarrik.

X. Lezo Jaizkibel mendi lasterketan Richard Marcos (01.33.13) izan zen Lasarte-Oriako lehena.



Cordero, lasterketan. MIREIA GALARZA

Belar hockeya bultzatu nahi dute Lasarte-Orian

Gipuzkoako Hockey Federazioak eta Lasarte-Oriako Udalak txapelketa eta erakustaldi bana antolatu dituzte kirol modalitate hori herritarrengana hurbiltzeko. Azken jarduera hori Okendo plazan aurrera eramango dute hilaren 3an, Okendon, 16:00etatik 19:00etara

Txintxarri

Hipodromo etorbideko zubia igarotzen amaitu eta ezkerrean, Donostiako lurretan, belar hockeyan aritzeko zelai egin berri bat dago. Taldeak hasi dira honezkeroko partidak jokatzen baina kirol hori sustatzen duten Gipuzkoako Foru Aldundiak eta probintziako federazioak urrats bat gehiago egin nahi dute, modalitate hori gure herrian ezagutzera emateko. Horretarako, 16 urtez azpiko txapelketa autonomiko (martxan dago honezkeroko) eta erakustaldi bana antolatu dituzte Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean. Herritar oro gonbidatu dute bi jarduera horietan parte hartzera. Gipuz-



Ezker-eskuin: Eli Yarza, Goizalde Pildain eta Jon Kamio. TXINTXARRI

koako Hockey Federazioko lehen-dakari Eli Yarza nahiz zuzendari tekniko Jon Kamio eta Lasarte-Oriako Udaleko Kirol zinegotzi Goizalde Pildain bertaratu dira hockey zelaira.

Txapelketan 16 urtez azpiko jokalariek parte hartzen ari dira, 21 autonomia erkidegotakoak (hamar emakumezkoen kategorian eta 11 gizonezkoen), Euskadi tartean. Gaur, hilak 1, finaletara nortzuk sailkatuko diren erabakiko dute, goizeko bederatzietatik arratsaldeko zazpietara arte jokatuko dituzten neurketetan. Kamiok jakinarazi duenez, biharko jardunaldia 10:00etan hasiko da eta igandeko finalak 11:00etan eta 13:00etan jokatuko dituzte. Ostean, dominak banatuko dituzte. "Adin tarte honetako kirolarientzat inoiz antolatutako txapelketa jendetsuena da; 500 kirolari inguru ari dira parte hartzen". Norgehiagokak ikustera bertaratu nahi duten herritarrek ez dute sarrearik ordaindu beharko.

Bestalde, konpetizio izaera ez duen erakustaldi bat aurrera eramango dute igande honetan, hilak 3, Okendo plazan. Hocke-

ya zer den ezagutu eta jokatzea animatzen direnek 16:00etatik 19:00etara izango dute horretarako aukera. Federazioko zuzendari teknikoak zehaztu du gonbidatu bereziak eramango dituztela ekimen horretara, esate baterako, Realaren maskota den Txurdin.

Partidak eta erakustaldia

16 urtez azpiko autonomia erkidegoen arteko txapelketa:

gaurko (hilak 1) partidak 09:00etan hasiko dira, eta, biharkoak, 10:00etan. Etziko final handiak 11:00etan eta 13:00etan jokatuko dituzte.

Okendo plazako hockey erakustaldia: 16:00etatik 19:00etara aurrera eramango dute eta kirol hori ezagutu nahi duen edonork parte har dezake jarduera horretan.

Eskolarteko gimnastek ederki eman diote hasiera lehiari

Landaberri eta LOKEko ordezkariak alebin eta infantil mailako lehen postuetan izan dira bakarka zein taldeka

Txintxarri

Eskolarteko mailako gimnastak otsailaren 24an eta 25ean bildu ziren Donostian aurtengo lehiari hasiera emateko.

Lehen hitzordu horretan, Landaberri eta Lasarte-Oria Kirol Elkarte (LOKE) talde zein bakarkakoek parte hartu zuten. Lehen egunean alebin mailako kideak izan ziren tapizean dantzan eta bigarrean, aldiz, infantilak.

Bakarkako lanetan fin ibili ziren Landaberri ikastolako ordezkariak eta lehen postuetan amaitu zuten saioa (ikus koadroa). Alebin C mailako P taldeak ere lehen postua eskuratu zuen bere lanarekin; izen bereko alebin B taldea laugarren izan zen eta LOKEko infantil taldea seigarren.

Hurrengo faseak

Izotzaldia urtu ostean, bigarren fasea prestatzen hasiko dira



Alebin C taldea lehiari. LOKE GIMNASTIKA

eskolarte mailako gimnastak; apirilaren amaieran bigarren faseari aurre egin beharko diote beste lan batzuekin. Bi saiotako emaitzen baturak erabakiko du zein gimnastak eta taldek jokatuko duten finala maiatzaren 11n.

Emaitzak

Alebin C maila

- Landaberri G 10^a.
- Landaberri P 1^a.

Alebin B maila

- Landaberri G 12^a.
- Landaberri P 4^a.
- Ariane Rodriguez 3^a.

Alebin A maila

- Laia Suberbiola 1^a.
- Aiala Jimenez 2^a.

Infantil C maila

- LOKE 6^a.



Errugbi eskoletako gaztetxoek euren trebetasuna erakutsi dute

Beltzak RTko harrobiko Eneko Sanchez eta Lander Zabala Euskadiko selekzioarekin lehiatu dira Valladoliden

Txintxarri

Errugbiaren harrobia indartsu datorrela ikusi ahal izan zen otsailaren 25ean, Michelin kirol gunean.

Beltzak RTko 10 eta 12 urtez azpiko gaztetxoek Zarautz RTko eskolako kideekin batera Hernani, Gaztedi eta Atletico San Sebastian taldeen aurka lehiatu ziren. Mele, plakaketa, korrikaldi, entsegu eta hirugarren denboraz ederki gozatu zuten gazteek.

Egun bat lehenago, Euskal Liga bigarren mailako taldeak Bilbora egin zuen bidaia. Universitario Bilbaoren aurka neurtu zituen indarrak. Etxeko taldea nagusi izan zen lehen zatian eta beltzek ezin izan zioten itzulua eman neurketari. Bilbotarrek 50-12 irabazi zuten.

Euskadirekin jokoan

Valladoliden 16 urtez azpiko Euskadiko selekzioak Gaztela Leonen aurka jokatu zuen Erkidegoen




Errugbi partidetakoa bat. TXINTXARRI

arteko Espainiako Txapelketako (CESA) jardunaldia.

Beltzak RTko harrobiko Eneko Sanchez eta Lander Zabala jokalariek norgehiagoka jokatu zuten; Sanchezek azken entsegu ere egin zuen. Ederki borrokatu eta 12 eta 7koarekin joan ziren atsedendira. Baina bigarren zatian Euskadiko gazteen lana ez zen nahikoa izan eta Gaztela Leonen 24-12 eraman zuen garaipena.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Arkaitz
(Marmar, marmar... Ixo!!) Libratuko hitzela pentsatzen huen? Zorionak Kultura lehendakari jauna!!!

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Erabiltzaileekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
- Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZTA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 1	LASA
LARUNBATA, 2	GIL
IGANDEA, 3	GIL
ASTELEHENA, 4	GIL
ASTEARTEA, 5	ACHA ORBEA
ASTEAZKENA, 6	URBISTONDO
OSTEGUNA, 7	GANDARIAS-URIBE

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia: Mañe I Flauquer plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

OHARRAK

La Esperanza elkarteko ezohiko batzarra

La Esperanza auzo elkarteak bertako kideei dei egin die hilaren 3an igandearekin egingo den ezohiko batzarrera gertura daitezten. Ohiko bilera goizeko hamarretarako aurreikusitako dute, eta bigarren ezohikoa, berriz, 10:30erako.

Gai ordena honakoa izango da: egoitza soziala, kuotak, eta, amaitzeko, erreguak edo galderak egiteko tarte bat izango dute auzokideek.

Elkartasun azoka

Donostiako Santa Teresa Ikasketxeak elkartasun azoka antolatuko du hilaren 7an eta 8an, ikastetxean bertan (Manuel Lardizabal Ibilbidea 25, Ibaeta, Donostia). Goizean, 09:30etik 13:30era eta arratsaldean 15:30etik 18:00etara produktu ezberdinak izango dira eskuragarri.

Bildutako dirua gobernu kanpoko hiru erakundetara bideratuko da, giza integrazio proiektu ezberdinetarako: Caritas, Fundeo eta Manos Unidas.

Informazio gehiago nahi izanez gero 943-21 17 64 telefonora deitu behar dute interesa duten herritarrek.

Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara, eskola zaharrekoa zein kontserbatoriokoa, hasiberria edota txistua tiraderan ahaztuta hautsa biltzen dutenetakoa. Duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera. Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 1



Larunbata, 2



Igandea, 3



Astelehena, 4



Asteartea, 5



Asteazkena, 6



Osteguna, 7



SUDOKUA

7		5		4		2	1	
		8			2	4	3	5
	4		8		5			
6			3		8		5	2
	8			2		3	9	
		1		5	9		8	
		9	2	6	1	8	7	
8				9				6
	7			8				9

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzeko. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

GARAJEA

ALOKATU

Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsaldez deitu hona: 650 63 65 88.

LANA

ESKAINITZA

Banatzalea behar da Andoingo zonaldean Berria egunkaria banatzeko. Bertarkoa izatea kontuan hartuko da. Kontratu mugagabea, lanaldi partziala, egunsentian. Asteartetik igandera. Ezinbestekoa da norberak bere ibilgailua izatea. Interesatuek bidali mesedez datu per-

sonalak edo kurrikuluma *banaketa@bidera.eus* helbidera.

ESKARIA

Emakume euskalduna etxeko lanak edo pertsona edadetuei laguntzen lan egiteko prest. Esperientzia dut. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Umeekin esperientzia daukat. Harremanetarako telefonoa: 695 18 41 79.

Lan bila nabil interna edo ordurka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo ordurka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitz gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz



www.txintxarri.eus

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administrataria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artebe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaleak:

Nikola Iraola, Xuban Urdaleta, Egoitz Epelde, Nora Navarro, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 1

LASARTE-ORIA Erakusketa

Martxoaren 8ari buruzko kartel erakusketa, hilaren 8ra arte.
Emakumearen zentroa, 18:00etatik 20:00etara.

LASARTE-ORIA Zinema

Korrika Kulturalaren barruan, *Bizkarsoro* filma emango dute. Ondoren, zuzendari Josu Martinezekin solasaldia egingo dute. Sarrerak 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 2

LASARTE-ORIA Antzerkia

Loti ederrak antzezlanaren emanaldia egingo du Gluglu konpainiak. Sarrerak 4 euro balio dute.
Kultur etxea, 17:00etan.

IGANDEA 3

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Andaluzia eguna ospatzen segiko du Semblante Andaluz elkarteak: **11:30ean**, meza rozieroa, Arantzazuko Ama parrokian. **14:00etan**, bazkide eta gonbidatuekin bazkaria, elkarteak Atsobakar auzoan duen egoitzan. **17:30ean**, Semblante Rociero koruaren kontzertua, Atsobakarrek egoitzan.

LASARTE-ORIA Zinema

Migrazioa, bidaia ahatezina filma emango dute, haurrentzat. Sarrerak, 4 euro balio dute.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Pobres criaturas filma emango dute, helduentzat. Sarrerak, 6 eurotan.
Kultur etxea, 19:30ean.

ASTELEHENA 4

LASARTE-ORIA Erakusketa

Korrikari buruzko erakusketa prestatu dute herriko ikastetxeetako ikasleek. Hilaren 18ra arte egongo da zabalik.
Antonio Mercero aretoa, 17:00etatik 19:00etara.



LASARTE-ORIA Ospakizuna

Andaluzia eguna otsailaren 28a izan bazen ere, Semblante Andaluz elkarteak igande honetan aurrera eramango ditu ospakizun ekimen gehienak, hilak 3: meza, bazkaria eta Semblante Rociero koruaren kontzertua.
Etzi, hilak 3, Arantzazuko Ama parrokian, 11:30etik aurrera.

ASTEARTEA 5

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Bi belaunalditako zenbait emakume gonbidatu dituzte Borobilean Elkarteak eta Asunak talde feministak, gai ugari buruz hitz egitera.
Oriarte Landaberri institutua, 19:00etan.

OSTEGUNA 7

LASARTE-ORIA Bertsolaritza

Lasarte-Oriako mugimendu feministaren genealogiari buruzko bertsotrikipoteoa aurrera eramango du Asunak talde feministak.
Okendo plazatik abiatuta, 19:00etan.

OSTIRALA 8

LASARTE-ORIA Elkarretaratzea

Udalak elkarretaratzea deitu du Emakumearen Nazioarteko Egunean.
Okendo plaza, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Escuela de princesas antzezlanaren emanaldia egingo du Makelur taldeak. Sarrera, doan.
Kultur etxea, 19:30ean.

LASARTE-ORIA Manifestazioa

Emakumearen Nazioarteko Egunean manifestazio bat egingo du Asunak neska* gazteen talde feministak. Ostean, afari girotua egingo dute Xirimiri elkarteak.
Okendo plazatik abiatuta, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Emakumeen afaria egingo dute Casa Humadan. Emakumearen Zentroan izena eman behar dute joan nahi dutenek, 30 eurogatik.
Casa Humada, 21:30ean.

IGANDEA 10

LASARTE-ORIA Zinema

El arca de Noe filma emango dute, haurrentzat. Sarrerak, 4 eurotan.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Negu Hurbilak filma emango dute, helduentzat. Sarrerak, 6 eurotan.
Kultur etxea, 19:30ean.

ASTELEHENA 11

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Sara Arruti Benito (EHuko ikerlaria eta leglaria) eta Maider Galardi Fernandez de Agirre (EHuko ikerlaria eta kazetaria) herritarrek

ZINEMA



LABURPENA

'Bizkarsoro'

Zuzendaria: Josu Martinez. **Gidoia:** Josu Martinez. **Argazkia:** Hiba Castro. **Musika:** Joserra Senperena. **Ekoizleak:** Tentazioa, Adabaki Ekoizpenak, Gastibelza Filmak. **Herrialdea:** Euskal Herria (2023). **Iraupena:** 82 minutu. **Generoa:** Drama. **Aktoreak:** Bea Kurutzarri, Martxela Aneva-Fuchs, Bixente Indart, Lea Campistrón, Eneida Alfaro-Camus.

Fikzio ezin errealago bat

Bizkarsoro herria ez da existitzen, eta,aldi berean, Euskal Herriko edozein udalerriz izan daiteke Bizkarsoro. Bertan bizi diren herritarrek fikziozko pertsonaiak dira, eta, era berean, euskaraz bizitzeagatik jazarriak izan diren euskaldun guztiak dira bizkarsorotarrak.

Josu Martinez zinemagile bilbotarrak zuzendutako film luzean 1914tik 1982ra gertatutako bost istorio kontatzen dira. Ahozko lekukotzetan eta idatzitako testuetan oinarritutako fikziozko bost narratiba dira, bost hamarkadako kontakizuna.

Solilik bai da bai legea: zarata mediatikoak eragindako itzalak argitzen hitzaldia emango dute, gaztelaniaz.
Antonio Mercero aretoa, 18:30ean.

Aintzane Usandizagak gidatuko du saioa.
Antonio Mercero aretoa, 18:30ean.

ASTEAZKENA 13

LASARTE-ORIA Mahai ingurua

Korrika Kulturalaren barruan, Bea Egizabal clownak bakarriketa saio bat egingo du eta ondoren solasaldi bat aurrera eramango dute euskaldundutako herritar batzuekin.
Ttakunenea elkarteak, 18:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Opera

Danok Kide elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak *La Cenerentola* ikuskizunaren emanaldi digitala egingo dute. Sarrerak 7,5 eta 9 euro artean balio dute.
Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etan.

ASTEARTEA 12

LASARTE-ORIA Emanaldia

Ihitten elkarteak ondutako *Lasarte-Oria: istorio zumez egina* dokumentalaren emanaldia aurrera eramango du Asunak neska* gazteen talde feministak.
Zabaleta Auzolan elkartearen lokala, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Literatura

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoko kideek Idoia Garzes idazle herritarra gonbidatuko dute euren saiora, berak idatzitako *Mendiko gaitza* eleberriaz hitz egitera.

ARGAZKI LEHIAKETA



Nagore Elola eta Eneko Martiarena. TXINTXARRI



Imanol Miranda. TXINTXARRI

Lasarte-Oriako oihaneko izaki dotoreenak

Azken urteetan ohikoa den moduan, herritarren imajinazioa eta artea saritu ditu TXINTXARRI-k, aurtengo Inauterietako argazki lehiaketaren bidez. 'Basoko ninfak' eta 'Lasartones' irudien egileek irabazi dituzte Avenida taberna-jatetxeko sariak

Txintxarri

Oihan eta basoetan badaude izaki itsusi eta beldurgarriak baina baita dotoreak ere. Lasarte-Oriako ingurune naturalean behintzat hala gertatzen da, TXINTXARRI aldizkariak antolatutako argazki lehiaketan argi geratu denez. Nagore Elola eta Eneko Martiarena protagonista dituen *Basoko ninfak* irudia da epaimahai profesionalari gehien gustatu zaiona eta egileek Avenida taberna-jate-

txeko bi menu goxo irabazi dituzte. Jarraitu aurretik, eskerrik beroenak establezimendu horren jabe den Yon Mikel Rodriguez, lehiaketa babesteagatik.

Bigarren saria, berriz, Blanca Monterok bidalitako *Lasartones* argazkiak eskuratu du eta Imanol Mirandak jaso du txartela. Hori erakutsita, taberna-jatetxe horretako patata tortilla eder bat jaso eta dastatzeko aukera izango dute. Zorionak irabazleei eta on egin!

Pirritx, Porrotx
eta Marimotots

EZ GARA JAITSIKO!

Martxoak 15, ostirala
Sarobe antzokia. URNIETA
Bi saio: 17:00 / 19:00

8€ Sarrerak salgai:
BKN, Ernaitza, Aiurri

AIURRI
23. korrika
HARRI
Irudik Batonak
2024ko martxoaren 14 & 15
INISTORRA
Urietako Euskaltzalen
Biltzara
AIURRI
Urietarrena da